

ABENDUAREN 27KO EKITALDIA HERRIETAN SUSTATZEKO GIDALIBURUA

Aurkibidea

Sarrera.....	1
Herrietan atxikimendu ekimenak.....	1
Kartelak eskatzeko	3
Sare sozialetarako edukiak.....	3
Autobusak antolatzeke	4
Email bidalketak	5
Bestelako ekimen posibleak.....	5

Sarrera

Abenduaren 27an, Euskalgintzaren Kontseiluak eta bazkideek deituta, Bilbao Arena euskaltzalez beteko duen [EKITALDIA](#) antolatuko da. Informazio guztia eta sarrerak WWW.PIZKUNDEA.EUS webgunean daude eskuragarri.

Ekitaldira deitzeko zein giroa berotzeko ekimen eta ekintza komunikatibo ugari egin daitezke. Hemen ideia sorta bat jasotzen dugu. Ahal den heinean, saiatu herriko, auzoko edo eskualdeko euskalgintzarekin eta norbanako euskaltzaleekin elkarlanean antolatzen, indarrak biderkatzeko!

Webgune honetan ekitaldiaren zabalpena egiteko oinarritzko baliabide eta materialak jasotzen joango gara (kartelak, inprimatzeko euskarriak, sare sozialetarako edukiak eta bestelakoak):

kontseilua.eus/abenduak27

Herrietan atxikimendu ekimenak

Abenduaren 3aren bueltan, Euskararen Egunaren testuinguruan, herri eta auzoetan ekimen ugari egiten dira, euskara elkarteek, ikastetxeek, udalek edota eragile ezberdinek elkarlanean antolatuta. Hemen aurtengo Euskararen Eguna ezaugarritzeko proposamen eta ideia batzuk jaso ditugu, baina beste edozein datetan ere egingarriak dira. Tokiko ahalmen eta moduetara egokituta, noski!

Proposatzen duguna da **euskaltzaleak Pizkunde berri baten inguruan** elkartuko dituen argazki jendetsuak egitea, lurrean mugikorrak jarrita linterna (*flash-a*) piztuta eta gora begira.

Adimen artifizialaren laguntzarekin sortu dugun irudi honetan ikus daiteke ekintzaren adibide bat:



Ondoren, elkarte bakoitzak zuen sare sozialetan igo dezakezue [#Pizkundera](#) edota [#EuskaltzaleonGaraiaDa](#) traolak erabiliz eta “Euskalgintzaren Kontseilua” (@kontseilua) etiketatuz. Gainera, komunikazioa@kontseilua.eus emailera bidaltzen badiguzue, guk geuk ere igoko ditugu.

Zuen herri edo auzoko Euskararen Eguneko egitarau baten barruan zein ekintza solte bezala argazki herrikoia egiteko deialdi irekia egiten baduzue, jakinarazi goiko emaillean eta guk ere deialdia zabaltzen lagunduko dizuegu.

Bestalde, zuen eragiletik zein norbanako gisa ekitaldiari atxikimendu publikoa eman nahi izanez gero, bi aukera proposatzen ditugu:

1. **Argazkiak** atera, taldean edo banaka, kartela eskuetan.
2. **Bideoa** grabatu, taldean edo banaka, atxikimendua emanez eta ekitaldira joateko arrazoi bat adieraziz.

Kartelak eskatzeko

Kartelak herrietara AEKko euskaltegien bidez banatuko dira. Zuen elkartetik kalean, lantokian, ikastetxean edo beste edozein tokitan jartzeko kartelak nahi badituzue, bete mesedez galdetegi hau: <https://forms.gle/6YbyLYkmljmbTQXt5>

Galdetegia bete ondoren, zurekin harremanetan jarriko gara kartelak non eta noiz jaso ditzakezun azaltzeko. Kartelak 48x68cm-koak dira, bertikalak.

Zure herrian, auzoan edo eskualdean euskalgintzako eragile gehiago badaude (euskara elkarateak, euskaltegiak eta abar), eurekin harremanetan jarri eta elkarrekin antolatzea eskertuko dugu.


Bestalde, kartelak zure kabuz inprimatzeko aukera baduzu (lantokian, etxean, kopistegian...), jaitsi hemen A4 tamainako [KARTELA](#).

Sare sozialetarako edukiak

Sare sozialetarako formatu eta tamaina ezberdinetara egokitu dugu kartela. Jaisteko sakatu irudien gainean.



Instagram / Facebook / Whatsapp
[Jaitsi hemen](#)



Instagram Stories
[Jaitsi hemen](#)



Karratua
[Jaitsi hemen](#)



Horizontala
[Jaitsi hemen](#)

Autobusak antolatzeko

Herri, auzo eta eskualdetik Bilbora joateko autobusak antolatzeko asmoa edo beharra dagoen kasuetan, inguruko euskalgintzarekin harremanetan jartzea eta elkarrekin antolatzea hobesten dugu. Herri bakoitza arduratu beharko da antolaketa, zabalpena egiteaz eta gastuak ordaintzeaz. Autobusak iragartzeko kartel eredu hau baliatu dezakezue.



[Jaitsi hemen](#)

Jada autobusa antolatuta dagoenean, koordinazio lanak errazteko jakinarazi mesedez formulario hau betez: <https://forms.gle/mudDsRtmrInJsZAi8>

Arazorik balego, idatzi ondorengo emailera: komunikazioa@kontseilua.eus

Email bidalketak

Bazkideen edo harpidetuen email zerrendak dituzten elkarte/eragileen kasuan, ohiko buletin edo bidalketetan deialdiaren mezutxo bat txertatu daiteke, edo email oso bat bidali ekitaldira joateko eta zabalpenean laguntzeko gonbitarekin.

Bestelako ekimen posibleak

- Ekitaldira deitzeko elkartearen kartel propioa sortzea eta zabaltzea.
- Sareetako edukiak sortzea, imajinazio apur batekin.
- Hedabideetara iritzi artikulak edo prentsa oharak bidaltzea (tokiko euskalgintzaren atxikimenduekin, adibidez).
- Kontseiluaren sare sozialak jarraitu eta mezuak zabaltzea: [X/Twitter](#) · [Mastodon](#) · [BlueSky](#) · [Instagram](#) · [Facebook](#) · [TikTok](#).

Bestelako proposamen, ekarpen edo ideiarik izanez gero, bidali mesedez komunikazioa@kontseilua.eus helbidera. Eskerrik asko, eta animo!